

JESUS ETA UMEAK

1

Umea eta usoa
 a ze bikote gozoa!
 Euren ispiluz, Jaunak damosku
 bere eskola osoa:
 Ume antzeko diranentzako
 da goiko paradisoa.

3

“Nor ete da haundiena?”
 Gizonen betiko tema.
 Jesusek beti neurri bat dauka:
 ume-jarrera ta sena;
 Jaungoikoari deitzen deitsona
 “ene Aitatxo” izena.

5

Gaurko irakaskizuna
 Jesusek emon deuskuna:
 - Zertan dagoan gizonarentzat
 egizko haunditasuna:
 gizonkeriak albora itzi
 eta hartu umetasuna.

7

O Aitatxo bihotzeko,
 egin gaituzu antzeko!
 Eskatzen deutsut malizi-tranpak
 arren, gugandik kentzeko;
 ume eginda, gogoz ta biziz
 Jesusen antza hartzeko.

2

Jaun haundiago ezina,
 Belenen Ume egina:
 Zapi mantarrez batuta dago
 ume txiki pospolina...
 Bera besteko ginake geu be
 goitik jatsiko bagina.

4

“Alde ume mukisua!”
 Pedroren hasarre-sua.
 -”Itzi umeai Nigaz egoten”
 berotu jakon Maisua:
 “Eurena da-ta nire Erreinua,
 jaso ondo abisua!”.

6

Bateko astakeriak,
 besteko txakurkeriak...
 Holakoetan gizona barik
 dabiltz pizti, aberiak;
 tokatzen ez dan legez bagabiltz
 hortik datoz aberiak.

8

Bada atea zeruan
 umeentzat tamainuan.
 Ume antzeko egin gagizuz
 Jesus izan zan moduan;
 haundi-txikiok senitartean
 sartuko gara orduan.